AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4189

173/2011 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearena, Mónica Arizmendi Pérez andreari Bilboko Eskualdeko (Bizkaiko Osasun Barrutia) Santutxu-El Karmeloko Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak esleitu izana errebokatzen duena.

Osakidetzako Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearen ekainaren 20ko 110/2006 Ebazpenaren bidez, Mónica Arizmendi Pérez andreari Bilboko Eskualdeko (Bizkaiko Osasun Barrutia) Santutxu-El Karmeloko Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak esleitu zitzaizkion.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, gerentziako zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Mónica Arizmendi Pérez andreari Bilboko Eskualdeko (Bizkaiko Osasun Barrutia) Basurto-Altamirako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak esleitu izana errebokatzea, berak hala eskaturik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abuztuaren 31tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesatuari eta Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bilbao, 2011ko uztailaren 15a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.